

Donostiako Diputazio Jauregian, 1981.eko urriaren 30ean, arratsaldeko 4etan hasi du Euskaltzaindiak hileroko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, P. Lafitte, F. Ondarra, J. San Martín, J. M.^a Satrustegi eta A. Zavala euskaltzin osoak. N. Alzola, P. Andiazabal, J. A. Arana, J. M.^a Aranalde, M. Atxaga, P. Charritton, J. Etxaide, E. Etxezarreta, J. Fz. Setien, S. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, J. M.^a Iriondo, X. Kintana, J. M.^a Lekuona, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak.

Goizeko euskaltzain osoen bilkuran egon dira, beste alde, eta arratsaldean etortzerik ez dute izan, J. L. Davant eta E. Larre jaunek.

E. Knörr, P. Larzabal eta K. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Lehengo hilabeteko agiria onartu da.

Goizeko bileren berri

Hiztegi espezializatuak. Luze doa Euskaltzindiari dagokion Hiztegi Espezializatuen aholkua nola behar lukeen erabakitzea. Gai korapilotsua. J. Intxaustiren gutun atzeratu bat irakurriz hasi da euskaltzainburua. J. San Martinek bere txostena irakurri du gero: lanen garantia eta metodologia aurrez nolabait segurtatzea komenigarri ikusten zuen. Euskaltzaindiaren zoin mailatako onarpena eraman behar duten ikusi beharko da gero eta epe baterako mugaturik, behar bada, finantziabidea ere zehaztuz. Mitxelena jaunaren gutuna irakurri du gero Villasante jaunak arazo honetan haren ikuspegia jakineraziz. Krutwig eta Altuna euskaltzainek ere beren oharrak idatzirik ekarri dituzte. Eztabaida luze eta bizi baten ondotik, batzarkideek dituzten oinarrizko eritzi berdinak azpimarratu dira aterabide baten bila urratsak ematen hasi nahiz. Bizpahiru eguneko bilera batean gaia ongi aztertu eta erabakitzea ere aipatu da. Baikorra izan da lana eta nola edo hala zerbait erabaki beharko da.

Euskera aldizkaria. Agortuak diren ale guzien birrargaritatzeko argitaltxe baten eskaintza genuen orain arte eskuartean, eta beste proposamen bat hartu da egun. Biak ikusi eta beste bilera batean erabakitzeke utzi da.

Pertsona Izendegia. Agorturik edo oso murrizturik dago bigarren argitalpena eta jendea eskez datorkigu. Gaiari dagokion legea aldatu dute, beste alde, eta egoera berri batean aurkitzen gara. Datorren batzarrerako txosten bat eskatu zaio Satrustegiri. Beste nornahik ekar ditzake noski bere oharrak.

IKER eta JAGON argitalpenak. Gernika-Leioako Jardunaldietako lane-kin datorren azaroen aurkezteko gertu dago IKER-1. Lafitte euskaltzainaren omenaldi liburua izango da IKER-2. J. San Martinen asmoari jarraituz, Iparagirreraren mendeurrenez gertatua zen liburuarekin Jagon Sailako bildumari hasiera ematea erabaki da.

Oinarrizko Euskara. Azkenekoz, Iberdueroren Euskal Mintegiak Bilbon Urriaren 23an Imanol Berriatuari egin dion omenaldiaz mintzatu da idazkaria. Orain arte batzorde honek egindako lanari nolabait jarraipena eman nahi zaio, eta Berriatuaren izena eramango duen kultur ekintzaren bat sortzeko asmorik ere badago.

Irakaslego Batzordea. Eguerdi aldera, Irakaslego Batzordeak bere dossier-txostena aurkeztu dio Euskaltzaindiari. A. Irigoyen euskaltzainaren sarrera-hitz batzuren ondotik X. Mendigurenek egin du dakarten idazkiaren laburpena. Funtsean, Irakasle Gaitasunaren Agiria ematen jarraitu beharko lukeela Euskaltzaindiak uste dute aho batez batzarkideek, eta hartu berri den titulurik ematen ez jarraitzeko erabakia berrikustea eskatzen da. Ahalik lasterren erantzuna ematea ere aipatu dute. Euskaltzain osoen eskuetan gelditu da dossierra eta erantzungo zaie.

Dialektologi Batzordea. J. A. Letamendiak eman du batzorde honen berri. Euskalki bakoitzaren eremuan herrien hautaketa eginga da, eredutzat zenbait harturik. Kontuan izan dira beste bereiztasun batzu ere. Oraikoz lexi-ko gaiekin hastea errazago ikusi da, gero beste gai batzukin jarraituko bada ere.

Literatur Batzordea. Madrilen egin den hizkuntza ttipien Kongresoaz mintzatu da, azkenik, Krutwig euskaltzaina. "Les problemes de la critique litteraire en basque" gaiaz mintzatu ere eta sortu gogo den literatur aldizkariaren berri eman die batzartuei. Idazlanak eskatu dizkie eta bidaltzeko prest daudela esan du.

Txostena

Juan M.^a Lekuonak "Bertsolarien estrofa motak Hegoaldeko usarioetan" aztertu ditu txosten mamitsu batean. Eztabaida aberatsa sortu du eta benetan argigarria izan da bere lana.

Bertsolari Batzordeko idazkari den J. M.^a Iriondok bertsolariekin egindako bileraren berri eman du. Datorren urteko saioen egutegia prestatzen ari dira.

Goizean bertan norbaitek aipatua zuen Euskaltzaindiak noizbait egin beharko lukeen bertsolaritzaren synposioa.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JOSE M.^a SATRUSTEGI